

AZTERKETAK | 49

2023ko AZAROA



FEMINISTAK GARELAKO: ZAINZA PUBLIKOAREN ALDE

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



MANU ROBLES-ARANGIZ
FUNDAZIOA

Feministak garelako: zaintza publikoaren alde

2.orr.

1. Sarrera	3
2. Emakumeek beren gain hartzen dituzte ordaindu gabeko zaintza-lan gehienak	4
2.1. Gizon eta emakumeen arteko zaintza-lanen banatzea.....	4
2.2. Lanaldi partzialeko enplegua, eszedentziak eta lanaldi-murrizketak feminizatuta daude.....	5
3. Sistemak zaintza-premia gehienak bete gabe ditu	7
3.1. Gizarte Zerbitzuen Legeetan eskubidea ez da aitortzen	7
3.2. Ordaindutako lanaren zati bat, etxeko langileek egindakoa, neurri handi batean abusu-egoerak jasaten dituzten emakume migratuek pairatzen dute.	8
3.3. Menpekotasun aitortua duten 220.000 pertsona. Beste asko estatistiketatik at.	9
3.4. Menpeko pertsona gehienak, inolako estaldurarik gabe	10
4. Zerbitzu gehienak enpresa pribatuen esku daude	10
5. Egoitzen erabiltzaile bakoitzak, batez beste, 16.588 euro ordaindu zituen 2020an.....	12
6. Sistemak eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea ez da nahikoa.....	12
6.1. Estaldura-maila eskasa da eta jaisten ari da.....	12
6.2. Langile-ratio txikiak	14
7. Proposamenak.....	15

1. SARRERA

ELAk 2023ko azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorrekin bat egin du. Greba horren aldarrikapen nagusia zaintzarako eskubide kolektiboa eraikitzea da, zaintzaren egungo antolaketa soziala eraldatuz. Sindikatua aspalditik ari da ildo horretan lanean. ELAk zuzeneko zaintzako sektoreetan (erresidentziak, etxez etxeko laguntza-zerbitzua, esku-hartze soziala, dibertsitate funtzionala, telelaguntza...) gidatutako borrokek lan feminizatu horiek ikusarazten eta balioesten lagundu dute. Sektore horietan egindako greba batzuk, hala nola erresidentzietan egindakoak, eredu izan dira borroka sindikal eta feministan; izan ere, lan-arloan ez ezik, borroka horiek zaintza sisteman jarri baitute arreta.

Mugimendu Feministaren lanari eta zaintza-sektoreetako langileek egindako aldarrikapenei esker, are gehiago politizatu da "zaintza" kontzeptua bera, kapitala eta bizitza arteko talka agerian utziz.

Bestalde, duela ia 20 urte, 2005ean, hainbat erakunde feministaren ekimenez, Mendekotasunaren Arretarako Euskal Sistema Publikoaren aldeko Plataforma eratu zen, eta erakunde sindikalek eta sozialek ere plataforma horretan parte hartu genuen.

Ildo horretan 2020ko urtarrilaren 30eko Greba Orokorra beste urrats bat izan zen, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak eta Pentsiodunen Mugimenduak deitua. Grebaren Aldarrikapen Taulan sistema publiko, unibertsal, doako eta kalitatezko bat izateko eskubide subjektiboa jasotzen zen, pertsonok gure bizitzan zehar jasaten ditugun menpekotasun-egoera guztiak bermatzeko.

Une honetan, aldarrikapena, mobilizazioa eta borroka inoiz baino beharrezkoagoak dira; izan ere, dokumentu honetan ondorioztatzen den bezala, sistema aldatzea, pertsona guztien bizitzak benetan antolamendu sozial eta ekonomikoaren erdigunean jartzeko eta funtsezkoa dena merkatuaren logikatik ateratzeko premiazkoa da. Horrek, gainera, zaintza-lanak generoaren, klasearen eta arrazaren ikuspegitik zuzen banatzea eskatzen du. Izan ere, gehienak emakumeen bizkar geratzen dira eta askotan eta bereziki baldintza prekarioetan dauden emakume migratuen bizkar. Politika publikoak oraindik ere gizarte-beharrizanetatik urrun daude.

Zaintzaz ari garenean, bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren jarduera multzoaz ari gara. Dokumentu honetan, gizon eta emakumeen arteko zaintza-lanen banaketa desberdina, menpekotasun-egoerak eta horiek betetzeko eskaintzen diren zerbitzuekin (publikoak eta pribatuak) zerikusia duten hainbat alderdi aztertuko ditugu. Análisi honen mugak, batez ere, dagoen informazio ofizial eskasak ezartzen ditu.

ELAk greba feminista orokor honetarako prestatu duen aldarrikapen taularen edukia azaldu nahi du azterketa honen bidez. Taula horretan, zaintza-sistema erantzukidea, publikoa, unibertsala, doakoa eta kalitatezkoa eskatzen dugu, eta horretarako beharrezkoa den gastu publikoaren igoera finantzatzeko beharrezkoa den erreforma fiskala.

2. EMAKUMEEK BEREN GAIN HARTZEN DITUZTE ORDAINDU GABEKO ZAINZA-LAN GEHIENAK


4.orr.

2.1. Gizon eta emakumeen arteko zaintza-lanen banatzea.

Eustatek EAEn egindako “Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta” k, azken datuak 2022koak dira, zaintza-lanen banaketa emakumeen eta gizonen artean oso desberdina dela agerian uzten du. Inkestak etxeko lanetan, seme-alaba adingabeen zaintzan eta menpeko pertsonen zaintzan gizon eta emakumeek egunean zenbat denbora ematen duten aztertzen da. Ondorioak argiak dira:

- Emakumeek beren gain hartzen dituzte ordaindu gabeko zaintza-lan gehienak.
- Emakumeek 2,1 ordu ematen dituzte egunean “etxeko lanetan”, eta gizonak, berriz, 1,6 ordu.
- Emakumeek 4,7 ordu ematen dituzte egunean seme-alaba adingabeak zaintzen, gizonak baino 1,2 ordu gehiago (3,6 ordu egunean).
- Emakumeek 2,3 ordu ematen dituzte egunean inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzen; gizonak, berriz, 1,7 ordu.
- Emakumeen eta gizonen dedikazioaren arteko aldea murriztu egin da azken 11 urteetan, baina oraindik ere zaintza-lan horien banaketa oso desberdina da.

Zereginen banaketa emakumeen eta gizonen artean, eguneko orduetan. EAE 2011-2022.




Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak eginda Eustatetik

Errealitatea, itxuraz aurreko datuetatik ondoriozta daitekeena baino okerragoa da; izan ere, estatistikan, lan horiek egiten dituztenek zeregin horietan ematen dituzten orduen batez bestekoa islatzen da. Zoritxarrez, zenbat gizonek eta zenbat emakumek zaintza-lanetan inolako lanik egiten ez dutenen inguruko daturik ez ditu ematen.

Hala ere, Nafarroako beste datuaren arabera (aurreko datua ematen ez badu ere) zaintza-lanak bikoteko bi pertsonetako batek bakarrik egiten dituen kasuetan, kasu gehienetan emakumeek egiten dituztela ondorioztatzen da. Adibidez, menpeko pertsonak etxean zaintzen diren kasuan, bikote bateko bi pertsonetatik batek bakarrik egiten duenean jarduera hori, kasuen %63 emakumea da, eta %35, berriz, gizona.

Zaintza-lanak beti egiten dituzten emakumeen eta gizonen proportzioa



Iturria: Nafarroako Zaintzen Erradiografia txostena


2.2. Lanaldi partzialeko enplegua, eszedentziak eta lanaldi-murrizketak feminizatuta daude

ELAren Azterketa Bulegoko Egoeraren Azterketa txostenean agerian utzi dugun bezala, behin-behinekotasunak eta, batez ere, lanaldi partzialeko enpleguak emakume itxura dute. Hala, azken hiru hilekoan:

- Emakumeen behin-behinekotasun-tasa %23koa da, gizonena baino 5,8 puntu altuagoa (%17,2).
- Lanaldi partzial ez-boluntarioa oso handia da emakumeen artean. Ia lau emakumetik batek baino gehiagok (%23) lanaldi partziala du; gizonen artean, berriz, tasa % 5,7koa da.

Tenporalitate eta partzialtasun-tasa gizonen eta emakumeen artean


6.orr.



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak eginda EPAtik

Denboran aldatzen ez den beste errealitate da seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa gehien-gehienak emakumeek hartzen dituztela da. 2022an, emakumeek beren gain hartu zituzten seme-alabak zaintzeko eszedentzien ia %90, eta senideak zaintzeko eszedentzien ia %80.

Adingabeak edo mendeko pertsonak zaintzeko emakumeen eszedentzien ehunekoa 2022an EAEn eta Nafarroan (%)




Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak eginda Gizarte Segurantzatik

Emakumeek zaintza-lanen proportzio handiagoa beren gain hartzeko beste arrazoietako bat soldata-arrakala da; izan ere, horren ondorioz, etxeetan emakumeek ordaindutako enplegua izateari uztea “merkeagoa” da, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzeko garaian diru-sarreren galera txikiagoa delako.

Gipuzkoako Foru Ogasunaren datuek Hego Euskal Herri osoan dagoen informaziorik onena eskaintzen dute, soldata-arrakala aztertu ahal izateko. Azken urtean (2022), emakumeek gizonen baino soldata txikiagoak izan zituzten, %22,2. Ogasun horrek eskaintako grafiko erantsian ikus daitekeenez, azken urteotan ez da aldaketa nabarmenik gertatu soldata-arrakalean, urteko 7.000 eurotik gorakoa delarik.

Sexuen arteko batez besteko soldata-arrakalaren bilakaera (eurotan)



Iturria: ELAren Azterketa Bulegoak eginda Gipuzkoako Foru Ogasunetik

3. SISTEMAK ZAINZA-PREMIA GEHIENAK BETE GABE DITU

3.1. Gizarte Zerbitzuen Legeetan eskubidea ez da aitortzen

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeek, bai EAEn, bai Nafarroan, gehienetan, menpekotasun-egoeran dauden pertsonek erakundeetatik egoera horri erantzungo dion eskubiderik zerbitzu publiko moduan ez da jasotzen. Gizarte Zerbitzuen Zorroaren garapenak ere ez du arlo horretan benetako aurrerapenik ekarri.

Horregatik, funtsezko zerbitzuen estaldura, bai erresidentzi-plazak edo etxez etxeko laguntza-zerbitzuak, erakunde eskudun bakoitzaren aurrekontuaren menpe dago. Eta, jakina denez, ortodoxia neoliberalak Hego Euskal Herriko erakundearen aurrekontu-politika zuzentzen du. Hau da, austeritatea edo aurrezkitza lehenesten dira, eta, horren ondorioz, aurrekontuak ez dira nahikoak, gizarte-premiak eta menpekotasuna zerbitzuetan dauden beharrezanez dagokienez.

Eskubide aitorturik ez dagoenez, eta aurrekontuak nahikoak ez direnez, laguntza behar duten pertsonen zaintza, batez ere, familia-eremuan geratzen da, eta, aurreko puntuan ikusi dugun bezala, bereziki, emakumeen esku.


3.2. Ordaindutako lanaren zati bat, etxeko langileek egindakoa, neurri handi batean abusu-egoerak jasaten dituzten emakume migratuek pairatzen dute.

Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartek emandako datuen arabera, ondorio hauek atera daitezke, besteak beste:

- Barneko langileen %100en jarduera nagusia menpekotasuna duten pertsonak zaintzea da. Kanpoko langileen artean, ehuneko hori %35koa da.
- Barneko langile guztien %29,50ek administrazio-egoera irregularra zuen; kopuru hori %43,38raino igotzen da Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrak bakarrik kontuan hartzen badira. Kanpoko lanean, emakumezko langileen %10,79 egoera irregularrean zegoen; Europar Batasunetik kanpoko emakumezko langileen % 25,56.
- Barne langile gehienek legez kanpoko baldintzetan egiten dute lan. Kanpokoan artean, egoera erregularrean daudenen %30 ez du Gizarte Segurantzako altarik.

Etxeko langileen erregimeneko Gizarte Segurantzako afiliazio-datuen arabera, zeregin horietan aritzen diren emakumeen zati bat baino ez dute isladatzen, Hego Euskal Herrian ia 35.000 pertsona daude erregimen horretan inskribatuta (ia 34.000 emakume direlarik).

Etxeko langileen afiliazioa HEHn 2023ko abuztuan



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak egina Gizarte Segurantzaren datuekin

Emakume horien lanaren zati handi bat menpeko pertsonak zaintzeko lana dela jakinik, sistema publikoak eskaintzen duen estaldura ezaren ideia ematen digu. Ondoriozta dezakegu beraz, zaintza-lanak feminizatu eta familiarizatu egin direla, hau da, familiek zaintza-beharrak etxekoan artean egin behar dituzte, sistema publikoaren gabeziagatik.


3.3. Menpekotasun aitortua duten 220.000 pertsona. Beste asko estatistiketatik at.

Estatistika ofizialek benetan menpekotasun-egoeraren bat duten pertsonen kopuruari buruz ez dute daturik ematen. Desgaitasunari, Autonomia Pertsonalari eta Menpekotasun Egoerei buruzko Inkestak (EDAD), azken datuak 2020koak dira, menpekotasuna aitortu zaien pertsona kopuruaren datua baino ez du adierazten, beraz, Inkesta bat baino erregistro soil baten balioa du.

Hego Euskal Herrian 220.000 pertsonak menpekotasun-egoera aitortua dute (171.800 EAEn eta 48.800 Nafarroan). Bi erkidegoetan gizonen eta emakumeen artean dagoen proportzioa deigarria da, horrek menpekotasun-egoera errealak antzemateko orduan sistemak duen akatsa agerian uzten du.

Hainbat arrazoiengatik, menpekotasun-egoeran dauden pertsona asko erregistro horietatik kanpo daude: araututako eskubide ezagatik, balorazioen atzerapenagatik, eskaintzen diren zerbitzuak nahikoak ez direlako balorazioa egiteko pizgarri ezagatik, zerbitzu horietako batzuk eskuratzeko dakarren diru-ordainketa handiagatik, eta abar. Hori dela eta, menpekotasun egoeran dauden milaka eta milaka pertsona aitortu gabe dute.

Mendekotasun aitortua duten pertsonak HEHn (2020)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda EDAD 2020tik

3.4. Menpeko pertsona gehienak, inolako estaldurarik gabe

Estatistika ofizialek zifrak gutxien dituztela onartuta, hoiak ematen diren zerbitzuekin alderatuz gero, menpekotasun-egoera gehienak estaldurarik gabe geratzen direla argi ikusten da :

- Nafarroako Gobernuaren arabera, zerbitzu guztiek (publikoak zein pribatuak) 10.086 pertsona artatu zituzten 2021ean, mendekotasun aitortua duten 50.000 pertsonen aldean. Kontuan izan behar da 10.000 pertsona horien artean, adibidez, 2.700 larrialdietako telefono-zerbitzua dutenak daudela. 2021ean, etxeko arreta-zerbitzua lurralde horretan 945 pertsonara baino ez zen iritsi.
- EAEko datuak are partzialagoak dira. Egoitzetan eta eguneko zentroetan 35.000 plaza daude (publikoak eta pribatuak). Etxez etxeko arreta-zerbitzuek artatutako pertsona kopuruari buruz ez dago informazio ofizialik . Hala ere, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendarien eta Kudeatzaileen Estatuko Elkarteak egindako DEC txostenak erakusten duenez, 65 urtetik gorako biztanleen %1,6ri soilik ematen zaie arreta (Estatuko batez bestekoa %5 da). Menpeko 172.000 pertsona baino gehiagorentzat hori guztia.

4. ZERBITZU GEHIENAK ENPRESA PRIBATUEN ESKU DAUDE

Zerbitzu gehienak enpresa pribatuen esku daude. EAEko datuek (ez dago informazio hori Nafarroarako), Eustatek emandakoek, 2020an zeuden 434 erresidentzietatik 146 (% 33,64) baino ez zirela titulartasun publikoko zentroak erakusten digute. Erresidentzien %66,4 titulartasun pribatukoak ziren urte horretan.

Hala ere, errealitatea okerragoa da. Izan ere, titulartasun publikoko erresidentzia asko enpresa pribatuak kudeatzen dituzte (erresidentzia pribatu asko kontrolatzen dituzten enpresa pribatu berdinek, irizpide bereberkin). Adibidez:

- Eustaten arabera Bizkaian titulartasun publikoko 46 erresidentzia daude, eta horietatik 11tan bakarrik kudeaketa publikoa dago (3 BFAren aldetik eta 8 udal-kudeaketaren aldetik). Gainontzekoak enpresa pribatuei emandako kontzesioak dira.
- Gipuzkoako titulartasun publikoko 74 erresidentzietatik, kudeaketa publikoa 17 kasutan baino ez da gertatzen (16 Kabiaren eta Egogainen kontura, Eibarren). Erresidentzia horietan 175 langile daude; horietatik gehienak, 114, azpikontratutako 5 enpresatakoak dira, 61 baino ez dira Foru Aldundiko langileak.
- Araban, titulartasun publikoko 26 erresidentzietatik 12 baino ez dira kudeatzen publikoki osotasunean (Aldundiaren esku 9 eta udalerrien kontura 3).
- Beraz, EAEn dauden 434 erresidentzietatik 40 baino ez dira kudeaketa publikokoak (%9,2). 106 erresidentzia titulartasun publikokoak dira, baina kudeaketa pribatua dute (%24,4), eta gainerako 288 erresidentziak (%66,4) pribatuak dira.

Beste datu garrantzitsu bat da EAEn erresidentzia pribatuetan dauden plazen erdiak itunduta daudela, hau da, aurrekontu publikoekin ordaintzen dira.

Etxez etxeko arretako zerbitzuak, oro har, enpresa pribatuen esku daude. Hala ere, ez dago gai hori aztertzen duen datu ofizialik.

EAEko adinekoentzako egoitza-zentroyen titulartasuna eta kudeaketa (2020)


TITULARTASUNA

434 EGOITZA




146 titulartasun publikoarekin


288 titulartasun pribatuarekin



KUDEAKETA




146 titulartasun publikoarekin



Kudeaketa pribatua

Kudeaketa publikoa




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda Eustatetik

5. EGOITZEN ERABILTZAILA BAKOITZAK, BATEZ BESTE, 16.588 EURO ORDAINDU ZITUEN 2020AN

Menpekotasuna artatzeko zerbitzuak doakoak izan beharko lukete, baina errealitatea ez da hori.

Bestelako daturik ez dagoenez Eusko Jaurlaritzak erresidentzietan pertsona nagusiek egiten duten ordainketari eta koordainketari buruzko estatistika baino ez du egiten. Datu horien arabera, erresidentzia bateko erabiltzaile bakoitzak 16.588 euro ordaindu zituen batez beste 2020an (hau da, erresidentzi-plazaren kostu osoaren %44), zifra hori 2.000 euro igo da 3 urtetan.

EAEko egoitzen erabiltzaile diren adineko pertsonen urteko batez besteko kuotaren bilakaera (2017-2020)



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda Eusko Jaurlaritzatik

6. SISTEMAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUEN KALITATEA EZ DA NAHIKOA


6.1. Estaldura-maila eskasa da eta jaisten ari da

Sistemaren kalitate eskasa definitzen duen elementuetako bat, dauden beharriaren zati txiki bat bakarrik estaltzen dela da. Gainera, propaganda ofizialak esaten duenaren kontra, datuek zerbitzuen estaldura jaisten ari dela erakusten digute (adibidez, egoitza plaza gehiago egoteak, edo etxez etxeko laguntza-zerbitzuek pertsona gehiago artatzeak, ez du esan nahi estaldura handiagoa dagoenik; izan ere, biztanleriaren zahartzearen ondorioz, premiak gehiago hazten dira zerbitzu horiek handitu direna baino).

Hego Euskal Herriko erakundeek informaziorik eman ezean, lehen aipatutako EKD txostenari esker ondorio hauek atera ditzakegu:

- Finantziaketa publikoko erresidentzi-plazaren estaldura-tasa (beraz, publikoen eta itunduen batura) %2,93 izan zen 2021ean EAEn (2,93 plaza 65 urtetik gorako 100 pertsonako) eta %2,72 Nafarroan. Joera aztertuz gero, azken hamarkadan estaldura-tasa hori pixka bat murriztu dela ikusten da. Estatu espainiarrean, estaldura-tasa %2,69koa izan zen 2021ean, goraizko joerarekin. Erantsitako grafikoetan ikus daitekeenez, gaur egun estaldura hori hemen, estatuan baino pitin bat handiagoa da, aldea hori minimo historikoetan dagoelarik.

Adinekoentzako finantzaketa publikoko plaza erresidezialen bilakaera Nafarroan, EAEn eta Espainiako Estatuan




Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda DEC txostenetik


- Etekez etxeko laguntzaren egoera nabarmen okerragoa da. Estaldura-tasa (zerbitzu horrek estaltzen dituen 65 urtetik gorako pertsonen ehunekoa) %1,6koa izan zen EAEn 2021ean, eta %2,2koa Nafarroan, Espainiako batez bestekoa baino askoz txikiagoa (%5). Hego Euskal Herrian beheranzko joera argia ikusten da (Espainiako estatuan ez bezala). Eta pertsonak artatzen diren batez besteko orduen kopuruari erreparatuz gero, oso modu negatiboan nabarmentzen da Nafarroako egoera, hilean 8,3 orduko zerbitzua eskaintzen baitu batez beste, EAEko hileko 20,6 orduengatik (zifra hori ere txikia da) edo Espainiako estatuko 19,7 orduengatik.

Adineko pertsonentzako etxeko laguntzaren estalduraren eta intentsitatearen bilakaera Nafarroan, EAEn eta Espainiako Estatuan

Estaldura



Intentsitatea



Iturria: ELAko Azterketa Bulegoak eginda DEC txostenetik

6.2. Langile-ratio txikiak

Zaintza-lanak langileek egiten dituzte; beraz, jakina, pertsona bakoitzarekin bere egoeraren araber behar diren orduak eman ahal izateko langile nahikoak behar dira.

Gizarte Zerbitzuei buruzko legeen gabeziak bat zerbitzu ezberdinetan menpekotasuna duten pertsonen arreta emateko beharrezko ratioak ez zehaztea da. Erabaki politiko horren bidez, zaintzara bideratutako baliabide publikoak murriztu nahi dira. Era berean enpresa-irabazien alde egiten da, etekinak bilatuz, langile kopuru gutxienarekin.

Aurrekontu-politika murriztaileen eta zaintza-lanen pribatizazioaren eta merkantilizazioaren hedapenaren ondorioz, enpresa pribatuak zerbitzu horien zati gero eta handiago baten jabe egin dira, eta zerbitzu horietan, praktikan, langile kopuru ez da nahikoa kalitatezko zerbitzua eman ahal izateko.

Ondorioz, oro har, langileen ratioak kalitatezko arreta eskaintzeko behar diren oso azpitik daude. Adibidez:

- Egoitzei buruzko dekretuaren zirriborroa, EAEko erakunde guztiek adostu zuten aurtengo ekainean, hobekuntza txiki bat dakar egungo egoerarekiko, baina, adibidez, Gipuzkoan aspal-didanik aplikatzen diren ratioen azpitik dago (ratio horiek ez nahikoak badira ere).
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuetan, premia-maila bereko egoeren aurrean, arreta-orduk murriztu egin dira udalerrri askotan.

Horregatik guztiagatik, langileek ez dute behar adina denbora erabiltzaile guztiei arreta egokia emateko, horrek dakarren lan-gainkarga kontuan hartuta.

7. PROPOSAMENAK

Egoera horren aurrean, ELAk hauetan oinarritutako zaintza-sistema bat ulertu eta aldarrikatzen du:

1. Publikoa

Zaintza-sistema publikoa izan behar du, pribatizatutako eta azpikontratutako zerbitzuak publikatuz eta zerbitzuak zabalduz. Helburua pertsonak eta zaintza erdigunean jarriko dituen sistema bat izatea da, eta ez enpresa-irabazia. Horretarako, zaintza-lan profesionalizatuak desmerkantilizatzea beharrezkoa da. Lankidetzaren publiko pribatuaren kontzeptua tranpatia da, enpresa pribatuek agintzea eta sektore publikoak finantzatzea onartezina da, desagertu beharrezkoa.

2. Unibertsala

Gizarte Zerbitzuen legeek administrazio eskudunek menpekotasun-egoeran dauden pertsona guztien beharrei eta eskubidez behar bezala erantzun dioetela bermatu behar dute. Legeek administrazioak zerbitzu horiek ematera behartu behar dituzte.

3. Doakoa

Zaintza-sistema menpekotasuna duen pertsonaren gaitasun ekonomikoa kontuan izan gabe egituratu behar da, koordinketa ezabatu, eta zerga bidezko finantzaketa osoa ezarri behar da.

4. Kalitatezkoa

Enpleguaren kalitatea eguneko zein gaueko ratioak eta arreta-orduak hobetzea da. Ratioak handitzeak eta zerbitzuen estaldura handitzeak 10.000 lanpostu berri baino gehiago sortzea ekarri behar du. Beharrezkoa da, halaber, lan-baldintzak hobetzea eta sektore horietako emakume langileen prekaritatea etetea, besteak beste, honako neurri hauek hartuta: baldintzak arlo publikoarekin parekatzea, lanaldi partzialak luzatzea, lanpostuak finkatzea eta subrogazioa bermatzea, txanda-kontratuak zabaltzea, bajak lehen egunetik betetzea, soldata-arrakala amaitzea, lan osasun eta segurtasuna hobetzea edo emozioak lantzeko planak aurkeztea.

Premiazkoa da, halaber, zaintzaile guztiak erregularizatzea, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean sartuz, eta Atzerritarri buruzko legea indargabetuz. Neurri horiekin, zainduak jasotzen duten arretaren kalitatea nabarmen hobetuko litzateke; haiekin igarotzen den denboran, jasotzen dituzten zerbitzuetan, bizi diren espazioetan etab., azken finean, zaindu ditzagun zaintzaileak.

5. Erantzunkidea

Zaintza-lanak gizonen eta emakumeen artean modu zuzen eta bidezkoan banatzen direla bermatu behar da. Ildo beretik, kontziliazioa hobetu dadin lanaldia murriztea eta zaintzarako lan-baimenak luzatzea beharrezkoa da.

Neurri horiek guztiak garatzeko, gastu publikoa nabarmen handitu behar da. Horretarako, diru-sarrerak handitzea ezinbestekoa da. ELAren ustez erreforma fiskal bat onartu behar da kapitalari, enpresa-irabaziei eta errenta handiei zergak nabarmen handitzeko. Zentzu berean, iruzur fiskala, soldataz kanpoko errentetan oinarritzen dena etetea ezinbestekoa da.

